






Auzok!! II

Auzok 2!!

Zure auzoa, zure istorioak, zure mugikorrarekin egindako bideo-fanzina!!!! Lantegi parte hartzailea da eta helburua Bilboko 5. barrutia genero ikuspegitik aztertzea da.

HELBURUAK	METODOLOGIA	PARTAIDEAK	IRAUPENA
<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzaileek eurek izandako esperientzien bitartez, hurbileko ingurua aztertzea eta baloratzea. • Norberaren mezuak eta edukiak sortzeko, mugikorraren eta IKTBen erabilera kontziente eta arduratsua sustatzea. • Etorkizunean baliagarri izango diren talde-dinamikak bultzatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Telefono mugikorra komunikazio-tresna gisa eta edukiak sortzeko baliabide gisa erabiltzea. • Auzoa, genero ikuspegitik aurkeztuko duen bideoa egitea. • “Autu-mautua” eta konfiantzazko elkarrizketa harremanetarako metodo gisa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Partaide-kopuru: 10. • Adina: 14 – 18. • Bilboko 5. barrutiko auzokideak (emakumeak). • Batez ere emakumeei zuzendua, baina generoaren inguruan eztabaidatzeko gogoia duen edonori irekia. 	<ul style="list-style-type: none"> • 4 saio. • 2h/saioko. • 2009ko azaroa eta Abendua. Asteroko hitzordua: asteazkena. • Asteazken zehar eta saio baten eta hurrengoaren artean ekintza zehatzak egingo dira.





Lantegiaren bigarren parterako sortutako irudia.

0. TESTUINGURUA

AUZOUK!! II 2009. urteko maiatzean egindako AUZOUK!! lantegiaren bigarren parte da. Bigarren lantegi hau lehen ekimeneko partaideek eurek proposatu zuten. Alde batetik, denbora gehiago behar zuten bideo-fanzina bukatzeko eta bestetik, lantegian zehar sortutako harreman-eremu berria mantentzeko aukera aprobetxatu nahi zuten. Bi arrazoi hauek tarteko, lantegiaren bigarren parte antolatzea erabaki genuen.

Lantegi hau Bilboko Udaleko Kultura Sailaren ekimena izan da. Helburua da 5. barrutiko hiritar gazteenei baliabideak eta azpiegiturak eskaintzea San Frantzisko Gizarte Etxean jarduteko aukera izan dezaten, bertako erabiltzaileak gehituz eta egonkortuz.

1. LANTEGI IZENA

Lantegia parte hartzailea da. Auzoko emakume gazteez osatutako talde batek Bilboko 5. barrutia aztertzea du helburu, beti ere genero ikuspegitik begiratuta.

Lantegiaren proposamena emakume gazteek auzoari buruz duten ikuspegia eta era berean, auzoarekin duten harremana aztertzea da. Auzoan bizitzeko eta mugitzeko eguneroko kontuak, haien nahiak, erritmoak, adierazpenak, arazoak, lengoaiak, ohiturak... hau guztia izango da bideo-fanzin digitala sortzeko erabiliko duten materiala.

2. HELBURUAK

Lantegi honen helburu bereziak honako hauek dira:

- Parte-hartzaileek eurek izandako esperientzien bitartez eta genero ikuspegia landuz, hurbileko ingurua modu kritikoan aztertzea eta baloratzea.
- Mugikorraren eta IKTBen erabilera kontziente eta arduratsua sustatzea.
- Konfiantza-eremua eratzea, fisikoa ez ezik, mentala ere izango dena, parte-hartzaileek euren kezka, ametsak eta iritziak partekatu eta eztabaidatu ditzaten.
- Parte-hartzaileak harremanetan jartzea eta auzokidetasuna bultzatuz, talde-ideia sustatzea.
- Taldeari burujabetasun-tresnak eskaintzea euren garapen askea landu dezaten.
- Etorkezinean baliagarri izango diren talde-dinamikak bultzatzea.

IA 18 egitasmoko helburuak ere biltzen ditu:

- Gazteengan **parte-hartzea, sormena eta hiritar kontzientzia bultzatzea.**

OHARRA:

AUZOUK!! lantegiaren bigarren parte honetan, taldearen imaginarioa lantzen jarraituko dugu eta era berean, bideoaren edizioan jarriko dugu arreta, *bideo-fanzina* lantegiak izango dituen 4 saioetan bukatuko dugula ziurtatzeko.



Karima bere ikuspuntua gainontzekoekin partekatzen.



Karima bideoaren edizioan lanean.

- Gizarte-agenteen (administrazioa, komunikabideak, etab.) eta gazteen arteko **bitartekaritza-bideak ezartzea**.
- **IKTBak modu konstruktiboan erabiltzea**, modu horizontalean, mundu digitalean jantzia izango den gizartea eraikiz.
- Gaur egungo **gazteen tipologia eta interesak aztertzea** (imaginarioa, nahiak, etab.).

3. EDUKIAK

Lantegian landuko diren gaiak honakoak izango dira: generoa, lurraldetasuna eta identitatea (norberarena eta taldearena).

Baina bestelako gaiak ere landuko ditugu: familia, lagunak, kontsumoa, aisialdia, sexualitatea, drogak, beldurrak, ametsak, ilusioak...partaideek hurbil sentitzen duten edozein gai, hain zuzen ere.

4. METODOLOGIA ETA EKINTZAK

Hona hemen lantegian zehar erabiliko diren ekintza metodologikoak. Denen parte-hartzea bultzatzeko, garrantzitsua da ekintza hauek taldearen erritmora egokitzea:

- Auzoko bizitzari buruzko bideoa asmatzea, sortzea eta ekoiztea, beti ere parte-hartzaileen iritzia ardatz hartuta.
- Inguruari buruzko eztabaida parte-hartzaileak sustatzea, datuak jaso eta aztertu ahal izateko.
- Horma-irudi bat sortzea, ondorengo edizioari begira lagungarri izango diren edukiak bertan jartzeko.
- “Autu-mautuak”, isilmandatuak eta kontu kontari ibiltzea parte-hartzaileen arteko harremana sendotzeko modu gisa erabiltzea.
- Parte-hartzaile guztien artean auzoaren irudi izango den mapa egitea.
- Mugikorra sormen-tresna gisa eta datuak (irudiak, musika, testuak, etab.) jasotzeko baliabide gisa erabiltzea. Era berean, mugikorra erabilgarri izan daiteke astean zehar egin beharreko lanean partaideak elkarren artean harremanetan egon daitezen.
- E-maila ikusgarriak baino gehiago, lan-prozesua bultzatzea.
- Lantegiak, era berean, alfabetizazio mediatikoa lortzeko helburua du, partaideak IKTBen erabilera kontziente eta arduratsuan murgiltzeko asmoz.
- Talde-lana elkarrekin egindako saioetan.
- Banakako lana zenbaitetan eta antolakuntzaren jarraipena astean zehar.
- Taldea sendotzeko ezagutza eta bizikidetzaren dinamika sustatzea.
- Ekimena ezagutarazteko eta oroitzeko, baliagarri izango den material “fetitxea” (taldearen irudia jasotzen duten txapak, parte-hartzaileen katetoak, etab.) sortzeko ekintzak.



Mugikorretik irudiak bidaltzen.

OHARRA:

Interesgarria da materialaren zabalkundeaz hitz egitea, hau da, bideo-fanazinaz. Lantegian garrantzi handia emango diogu lanaren zabalkundeari eta ezagutarazteari, lana publikoaren aurrean aurkezteko aukera baliatuz.



Auzoa lanerako gelatik ikusia.

5. LANTALDEA

Parte-hartzaile kopurua: 7 lagun.

Adina: 14- 18 urte.

Sexua: Emakumeek dute lehentasuna (ez baztertzailea)

Parte-hartzaile guztiak Bilboko 5. barrutiko auzokideak izango dira.

2 dinamizatzaile.

Lantegiaren ardura IA18ko bi dinamizatzailek izango dute AUZOUK!! lehen tailerlean parte hartu zutenak.

6. EGUNAK ETA ORDUTEGIA

2009ko azaro eta abenduko lau sesio (asteazkenetan).

Azaroa 18.....2h (18:00- 20:00).

Azaroa 25.....2h (18:00- 20:00).

Abendua 02.....2h (18:00- 20:00).

Abendua 09.....2h (18:00- 20:00).

OHARRA:

Lan-saioak, lehen bezala, asteazkenetan 18:00etatik 20:00etara izango dira, horrela taldeari lagungarri izango zaion errutina ezarriko dugu.

Saioak 2 ordukoak izango dira ofizialki, benetako ordu eta erdi izan dezagun lanerako (garaiz iristea, atsedanak, erritmo lasaia, etab.)

7. KOKAPENA

San Frantzisko Gizarte Etxeko balio anitzeko gela bat (Mariaren Bihotza Plaza 4, 48003, Bilbo).

Gainera, hainbat ekintza egingo dira auzoan zehar.

8. MATERIALA

Materiala:

- Mugikorrak (bideo-kamera dutenak).
- Ordenagailu eramangarri bi (gehiago izateko aukera).
- Bideoak editatzeko programak (Movie Maker, Sony Vegas...).
- Irudiak editatzeko programak (Gimp, Photoshop...).
- Bideoen bihurketa egiteko programak (Super Video Converter, MPG, Streamclip...).
- Koloretako inprimagailua.
- Bulego-materiala (errotuladoreak, boliak, arkatzak, guraizeak, itsasgarria, folioak, zinta itsasgarria, gometak, zatar-papera, etab.).
- CDak (grabatzeako aukera dutenak)



Bideoaren edizioa lantzen.



Karimak Mariaren Bihotza plazako ideiak komentatzen ditu.

- Txapak egiteko makina eta material suntsikorra.
- Txartel-irakurgailua.
- Horman jarri eta idazteko paper handiak (arbel modura).
- Desiren eraikuntzarako hainbat material (Izaera desberdineko materialak, zaramara botetzeko ditugun zenbait material etab.).

Azpiegiturak:

- Lanerako gela, wi-fia, aulkiak eta mahaiak izango dituen lanerako gela, hain zuzen ere (San Frantzisko Gizarte Etxea).

Partaideak ekarri beharreko materialak:

- Adin txikikoen kasuan, gurasoek sinatutako baimena.
- Bideo-kamera duen mugikorra (ez da ezinbestekoa, antolakuntzak izango du baten bat).
- Saio bakoitzera astean zehar bildutako materiala ekartzea.

9. EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

Lantegia ebaluatzeko parte-hartzaileekin egindako ebaluazioaz gain, honako faktore hauek hartuko ditugu kontuan:

- Parte-hartze aktiboaren maila (bertaratzea, motibazioa...)
- Gazteen gogobetetze-maila (gazteen ebaluazioa)
- Harreman eta enpatia maila
- Taldearen harreman pertsonalak
- Taldearen hausnarketa-gaitasuna
- Sormen-gaitasuna
- Taldearen espiritu kritiko eta autokritikoaren maila
- Lantegian egindako gauzen eta emaitzen maila.

10. DOKUMENTAZIOA

Emakumearen museoaren proiektua da eta mundua emakumeen ikuspuntutik aztertze bidea eskaintzen du:

<http://imagingourselves.imow.org/pb/Welcome.aspx>

Bideo-editoreen zerrenda:

http://en.wikipedia.org/wiki/List_of_video_editing_software

SOFT FICTION, kontakizunak sortzeko formula gisa antolatutako proiektua da. Ekimen hau fikzioaren eta dokumentu ideiaren artean mugituko da. Virginia Villaplana artistak gidatuko du eta consonni arduratuko da produkzioaz.

http://www.consonni.org/intrahistorias/template_archives_cat.asp?cat=78



Ordenagailuan pistak ikusiko ditugu.



11. LAN-ERANSKINAK

Hurrengo eranskinetan lantegiaren saio bakoitzeko bidai orria topatuko duzu.

- 1eranskina:** 1. SAIOA
2eranskina: 2. SAIOA
3eranskina: 3. SAIOA
4eranskina: 4. SAIOA



Materialak biltzeko lan-saioa.

12. KONTAKTUA

IA 18 irabazi-asmorik gabeko elkarte da. Elkarte honek gizarte zibilaren parte-hartzea eta elkarreragina oinarri duten proiektuak erabiliz, aniztasun kulturala sustatzen du.

IA 18 nerabeei zuzendutako eta ekintza kulturalaren inguruko ekimenak garatzen dituen elkarte da. IKTak (informazio- eta ezagutza -teknologiak) eta sormena zein bitartekaritza kulturala lantzen dituzten estrategia pedagogikoak erabiliz, gazteei ematen die hitza, hiritar aktibo gisa inguruan duten mundua definitzen parte har dezaten:

IA18

Aretxaga, 10
 48003 Bilbao
 946 053 468
www.casitengo18.com
info@casitengo18.com

Fitxa hau Creative Commons 3.0 España baimenarekin erregistratu da. Aske zara zure taldearekin lantegi hau egiteko, baina gogora ezazu ez dagoela formula magikorik eta hobe dela edukiak zure testuinguruaren eta taldearen beharren arabera moldatzea.



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.es>

Fitxa hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin egin da.





1. SAIOA

HELBURUAK	Konfiantzako eremua sortzea da helburua, fisikoa ez ezik, mentala ere izango den eremua, parte-hartzaileek euren kezka garatzeko, ametsak eta arazoak partekatze eta iritziak eztabaidatzeko aukera izan dezaten. Beti ere, askatasunez jokatzu eta euren kodeak erabiliz.
------------------	--

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
10 min.	Lantegiaren aurkezpena	Aurkezpen laburra.	Editatutako bideoa. AUZOUK!! lantegiaren lehen partean sortutako material fisiko eta digitalak.
10 min.	Orain arte egindakoa gogoratu eta ikusi.	Materialen imaginarioa eta izaera.	Parte-hartzaileen objektu pertsonalak. Kameradun 5 mugikor.
30 min.	Ezagutza-ekintza. Definitu zeure burua, zer daramazu soinean?	Norberaren aurkezpena. Parte-hartzaileen nortasuna. Gauzei ematen dieten balioa.	Parte-hartzaileen objektu pertsonalak. Kameradun 5 mugikor.
10 min.	Desirak eraikitzen.	Parte-hartzaileen desira pertsonalak.	Sortzeko objektu eta materialak.
30 min.	Bi desira komunean jarri. Taldearen imaginarioa sortu.	Talde parte hartzailearen imaginarioa.	Horma-irudi papera. Koloretako errotuladoreak. Zinta itsasgarria.
20 min.	Materiala ordenagailura irauli eta bideoaren aukerei buruz eztabaidatu.	Nori zuzendua, non egingo da emanaldia edota egingo al da emanaldia?, bideo-mota, etab.	2 ordenagailu. Mugikorretatik irudiak deskargatzeko kableak. Argazki-kamera.
10 min.	Astean zehar, betebeharrak gogoratzeko, mugikorrera SMSak bidaliko zaizkiela esan.	Komunikazio eta harreman moduak.	

Lantegiaren aurkezpena----- **10 min.**
Lantegiari buruzko aurkezpen laburra.

Orain arte egindako lana gogoratu eta ikusi----- **10 min.**
Taldeak lantegiaren lehen partean egindako lana ezagutuko du. Aurreko lantegian parte hartu zutenek, nahiz parte-hartzaile berriek, AUZOUK!!-en garatutako bideoa ikusiko dute. Material hau izango da *bideo-fanzina* egiteko abiapuntua.

Definitu zeure burua, zer daramazu soinean?----- **30 min.**
Elkarren artean ezagutzeko ekintza da eta bide batez, parte-hartzaileen nortasunak eraikitzeko tresna ere. Bideoa egiteko hainbat material lortuko dituzte ekintza honen bitartez.
Zer daramazu soinean?
Partaide bakoitzak soinean daramatzan objektuak jasoko ditu mugikorrarekin, irudia nahiz bideoa, haren egunerokotasunean beharrezkoak direnak identifikatuz eta beharrezko ez direnak alde batera utziz.
Adierazgarrien suertatzen zaizkion eta bere nortasuna islatzen duten hiru objektu aukeratuko ditu eta erabaki hau hartzeko arrazoiak taldearekin partekatuko ditu.

Desirak eraikitzen----- **10 min.**
Lanerako mahaia prestatuko dugu. Mahai gainean sorkuntzarako hainbat material jarriko dugu (eraikitzeko jokoetako zatiak, mertzeria-gaiak, paper-dendetako materiala, etab.; ekintzan zehar lagungarri izan daitekeen edozein objektu).
Parte-hartzaileak mahai-inguruan kokatuko dira.
Eginbeharra mahai gainean dauden materialekin norberaren desira eraikitzea izango da.

**Desirak komunean jarri eta taldearen imaginarioa sortu -----30 min.**

Partaide bakoitzak eraikitako desira gainontzekoekin partekatuko du. Bitartean, aurkezpenak grabatu egingo dira eta hor ateratzen diren ideiak baliatuz, ideia-mapa egingo da.

Materiala ordenagailura irauli eta bideoaren aukerei buruz eztabaidatu-----20 min.

Bideoak jaso ondoren, material guztia mugikorretatik ordenagailura irauliko da.

Astean zehar bakoitzaren mugikorrera sms bidez bidaliko dizkiegun galderak:

Auzouk! Non zaude?

Auzouk! Zein dendatara joan zara astean zehar? Dendak grabatu, ticketak gorde edo argazkiak atera.

Auzouk! Zein izan da gaur bota dizuten hitzik ederrena?

Auzouk! Interesgarri iruditu zaizun zerbait.

Auzouk! Larunbat gaua, zauden lekuaren bideoa grabatu.

Auzouk! Zein izan da asteko momenturik aspergarriena?

Auzouk! Nor dago zurekin?



2. SAIOA

HELBURUAK	Parte-hartzaileek eurek izandako esperientzien bitartez eta genero ikuspegitik, hurbileko ingurua aztertzea eta baloratzea. Mugikorraren eta IKTBen erabilera kontziente eta arduratsua sustatzea.
------------------	---

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
15 min.	Bideo-edizioa: Materiala ordenagailura irauli.	Astean zehar jasotako informazioa ordenagailura pasatu.	Txartel-irakurgailua. Ordenagailua. Inprimagailua.
15 min.	Bideo-edizioa: Orain arte egindakoa eztabaidatu eta denboraren lerroan kokatu.	Materiala antolatu. Ikus-eskemak.	Errotuladoreak/margoa k. Paperak. Guraizeak/itsasgarria.
30 min.	Ekintza-saioa. 2 grabaketa azkar. 2019 irudiak: Pertsonala Plaza	Gizarte Etxearen inguruan. Norberaren sentipenak eta pertzepzioak.	5 mugikor. Grabagailua. Papera. Errotuladoreak. 2 ordenagailu. Datuak igortzeko kableak.
15 min.	Bideo-edizioa: Landutako materiala ordenagailura irauli eta denboraren lerroan kokatu.	Tresna teknikoak.	Bideoak eta irudiak editatzeko eta artxiboak bihurtzeko programak.
30 min.	Jasotako materiala komunean jarri eta eztabaidatu.	Espazioari buruzko sentipen pertsonalak. Gizarte Etxea eta auzoa. Norberaren interesak.	

Bideo-edizioa: Materiala ordenagailura irauli-----**15 min.**
Astean zehar jasotako bideoak eta argazkiak ordenagailura pasa eta bide batez, denen artean komentatuko ditugu.

Bideo-edizioa: Egindakoa komentatu -----**15 min.**
Egindakoa erreparasatu eta komentatu, horman jaso diren ideiak eta gaiak kontuan hartuz.

Ekintza-saioa -----**30 min.**
Bakoitzak grabaketa motzak egingo ditu 30 minutuz ekintza-giroa sortuz. Hainbat jarraibide eskainiko dizkiegu.

- Gizarte Etxeko edo inguruko leku atseginen bati argazkia edo bideoa egiteko 7 minutu.
 - Gizarte Etxeko edo inguruko leku desatseginen bati argazkia edo bideoa egiteko 7 minutu.
- Partaide bakoitzarentzat folioak eta errotuladoreak prestatuko ditugu. Grabaketen denbora bukatzen denean, taldea bildu egingo da etorkizuneko erretratuak egiteko. Partaide guztiak dute beharrezko materiala. Denek aldi berean egingo dituzte erretratuak.
- 5 minutu. Nola ikusten duzu zure burua 2019. urtean?
 - 5 minutu. Nola nahiko zenuke izatea Mariaren Bihotza plaza?

Bideo-edizioa: Egindako materiala ordenagailura irauli -----**15 min.**
Saioan zehar egindako bideoak ordenagailura pasa eta bideoan landuko diren gaiak ideia-mapan kokatuko dituzte.

Komunean jarri eta eztabaidatu-----**10 min.**
Landutako material guztia ikusi eta haren inguruan eztabaidatuko dugu.



Astean zehar mugikorrera bidaliko zaizkien galderak:

- *Auzouk!! Norekin gurutzatzen zara institutura joaterakoan?*
 - *Auzouk!! Ba al da auzoan atsegin ez duzun zerbait?*
 - *Auzouk!! debekatutako 4 leku?*
 - *Auzouk!! zure lekurik gustukoena?*
 - *Auzouk!! Nora ez zinateke bakarrik joango?*
- (...)



3. SESIOA

HELBURUAK	Parte-hartzaileak harremanetan jartzea eta auzokidetasuna bultzatuz, talde-ideia sustatzea . Taldeari burujabetasun-tresnak eskaintzea euren garapen askea landu dezaten. Etorkizunean baliagarri izango diren talde-dinamikak bultzatzea .
------------------	--

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
30 min.	Bideo-edizioa: Eduki berriak denboraren lerroan kokatu eta ordenagailura irauli.	Astean zehar bildutako informazio berria.	Txartel-irakurgailua. Ordenagailua. Inprimagailua.
30 min.	Ideiak bildu eta bideoa nolakoa izango den erabaki.	Bideoaren forma eta edukia.	Errotuladoreak/margok k Paperak. Guraizeak/itsasgarria. Koloretako zinta. Mugikorrak.
45min.	Bideo-edizioa: Bideo-fanzinaren muntaia.	Tresna teknikoak. Bideo-edizioa. Bideoan aterako diren gaiak eta ideiak.	Grabagailua. Txartel-irakurgailua. Ordenagailua. Inprimagailua. Bideoak eta irudiak editatzeko eta artxiboak bihurtzeko programak.
15min.	Bideoaren zabalkundea: Lanarekin jarraituko dugun ala ez erabaki eta era berean, lanaren plazaratzea nola egingo den eztabaidatu.	Noiz. Nola. Norentzat. Baliabideak. Taldearen inplikazioa.	

Denboraren lerroa eta material berria ordenagailura pasa ----- 30 min.

Material berriak ordenagailura iraultzen diren bitartean, eztabaidatu eta denboraren lerroan kokatuko ditugu. Honela, bideoa osatzeko material eta ideia guztiak batera ikusteko aukera izango dugu.

Ideiak bildu eta behin betiko bideoa nolakoa izango den erabaki----- 30 min.

Edukiei eta formari buruzko orain arteko iritziak komunean jarriko ditugu eta behin betiko zenbait erabaki hartuko ditugu.

Bideo-edizioa: Bideo-fanzinaren muntaia ----- 45 min.

Behin betiko bideoaren muntaia. Taldeak bideoa osatuko du.

Bideoaren zabalkundea----- 15 min.

Egindako lana plazaratzeko aukeren gainean eztabaidatu eta erabakiak hartuko ditugu.

Noiz, nola, norentzat, baliabideak.

Taldearen inplikazioa behar-beharrezkoa da hartutako erabakiak aurrera ateratzeko.

Egindako lana jendaurrean erakusteko aukera aztertuko dugu, lagunentzat, familiarentzat, etab. antolatutako emanaldia, esaterako.

Emanaldiaren izaera, prestaketa, antolakuntza eta komunikazioa:

Kartelaren diseinua, nola erakutsiko da bideoa?, materialak (adibidez, txapak), datak, etab.

Astean zehar mugikorrera bidaliko zaizkien galderak:

Materialaren arabera galderak izango dira. Erabil daitezke orain arte erabili ez diren zenbait edo parte-hartzaileei gehien interesatzen zaizkienak.



4. SESIOA

HELBURUAK	Parte-hartzaileak harremanetan jartzea eta auzokidetasuna bultzatuz, talde-ideia sustatzea . Taldeari burujabetasun-tresnak eskaintzea euren garapen askea landu dezaten. Etorkizunean baliagarri izango diren talde-dinamikak bultzatzea .
------------------	---

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
20 min.	Bideo-edizioa: Eduki berriak denboraren lerroan kokatu eta ordenagailura irauli.	Astean zehar bildutako informazio berria.	Txartel-irakurgailua. Ordenagailua. Inprimagailua.
60 min.	Bideo-edizioa: Azken erabakiak. Bideo-fanzinaren behin betiko muntaia.	Tresna teknikoak. Bideoaren edukia eta forma. Bideoan jasotako gaiak eta ideiak. Kredituak.	Errotuladore/margoak Paperak. Guraizeak/itsasgarria. Koloretako zinta. Mugikorrak. Grabagailua
30 min.	Behin betiko bideo-fanzina ikusi. Komunikazioa prestatu.	Noiz. Nola. Norentzat. Baliabideak. Taldearen inplikazioa.	Txartel-irakurgailua. Ordenagailua. Inprimagailua. Errotuladorea/margoak Paperak. Guraizeak/itsasgarria.
10 min.	Agurra.		Bideoak eta irudiak editatzeko eta artxiboak bihurtzeko programak.

Denboraren lerroa eta material berria ordenagailura pasa ----- **30 min.**
 Material berriak ordenagailura iraultzen diren bitartean, eztabaidatu eta denboraren lerroan kokatuko ditugu. Honela, bideoa osatzeko material eta ideia guztiak batera ikusteko aukera izango dugu.

Bideo-edizioa: Behin betiko muntaia----- **60 min.**
Bideo-fanzinaren behin betiko muntaia. Azken erabakiak hartu eta behin betiko edizioa bukatuko dugu.

Behin betiko bideo-fanzina ikusi----- **30 min.**
 Taldeak bukatutako *bideo-fanzina* ikusiko du. Bideoaren komunikazioa nola egingo den erabaki eta etorkizuneko balizko lanari buruz hitz egingo dugu.

Agurra----- **10 min.**
 Taldeak bukatutako *bideo-fanzina* ikusiko du. Bideoaren komunikazioa nola egingo den erabaki eta etorkizuneko balizko lanari buruz hitz egingo dugu.